BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA: GALDAKAOKO UDALAREN KIROL INSTALAZIOENTAN KOORDINAZIOA, ATEZAINTZA, GARBIKETA, SOROSPENA, MONITOREAK ETA INSTALAZIOEN MANTENTZE-LANAK EGTEKO ZERBITZUAK LEHIAKETA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEA, GENERO IKUSPEGIA ETA HIZKUNTZA IRIZPIDEAK TXERTATUTA

1.- KONTRATUAREN XEDEA 5

2.- ZERBITZUAK EMATEKO INSTALAZIOAK 6

Instalazioen eta kirol-zerbitzuen koordinazioa 8

Monitoreak 9

Sorospen-zerbitzua 9

Atezaintza: 10

Mantentze-lanak 10

4. KIROL-JARDUERAK ETA -IKASTAROAK 11

5.- KLUBEN, IKASLEEN ETA ELKARTEEN HARREMANA ESLEIPENDUNAREKIN 12

6-. ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZA OROKORRAK 12

7.- ENPRESA ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK GENERO-IKUSPEGIAREN ARLOAN 13

8.- ENPRESA ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK HIZKUNTZA-IRIZPIDEEN ARLOAN 13

I. ERANSKINA. JENDAURREKO INSTALAZIOAK IREKITZEKO GUTXIENEKO ORDUTEGIAK (30' gehiago aldagelak erabili eta haietatik irteteko) 16

II. ERANSKINA. URTEKO ZERBITZUA (ADIBIDEA) 17

III. ERANSKINA. GUTXIENEKO GARBIKETA-ZERBITZUAK ETA -MAIZTASUNAK 18

IV. ERANSKINA. KIROL-ESKAINTZA 20

V. ERANSKINA. SUBROGAZIOA 22

VI. ERANSKINA. FITNESS GELAKO MAKINAK 24

6 unitate: korrika egiteko zinta profesionala: 26

6 unitate: eliptika profesionala 26

2 unitate: bizikleta etzana profesionala 27

4 unitate: bizikleta bertikal profesionala 27

2 unitate: stepperra (eskailera) 27

2 unitate: indoor txirrindularitzako bizikleta 28

2 unitate: arraun egiteko ergometroa 28
2 unitate: iraupen-eskiko simulagailua (Skierg) 29
2 unitate: korrika egiteko zinta kurbatua 29
1 unitate: sabelaldea lantzeko bankua (90º) 29
1 unitate: gerrialdea lantzeko bankua (45°) 30
2 unitate: bularraldea lantzeko press bertikala 31
2 unitate: jesarrita arraun ekiteko makina 31
2 unitate: sorbalda lantzeko press makina 31
3 unitate: koadrizepsak luzatzeko makina 31
3 unitate: femorala jesarrita lantzeko makina 32
3 unitate: aduktorea/abduktorea lantzeko makina 32
1 unitate: bizeps/trizepsak lantzeko polea duala 32
2 unitate: dortsalak lantzeko makina 33
1 unitate: bizepsak lantzeko curl makina 33
1 unitate: trizepsak luzatzeko makina 33
1 unitate: zango-prentsa, jesarrita 33
1 unitate: dominatu lagunduak egiteko makina 34
1 unitate: femorala etzanda lantzeko makina 34
1 unitate: muskulu bikiak/kokorikatzeak lantzeko makina duala 34
1 unitate: luzapenak/atzeko deltoiak lantzeko makina 35
1 unitate: bi pisu-dorre dituen estazio funtzional duala 35
1 unitate: estazio anitzeko kaiola (2 dorreko 8 postuduna) 35
1 unitate: bularraldea disko bidezko kargak erabiliz lantzeko press makina 36
1 unitate: luzatze inklinatuak disko bidezko kargak erabiliz lantzeko makina 36
1 unitate: arraun egiteko behe-makina, disko bidezko kargak erabiliz 36
1 unitate: polea garai alderantzikatua, disko bidezko kargak erabiliz 36
1 unitate: sorbaldak disko bidezko kargak erabiliz lantzeko press makina 37
1 unitate: bizepsak lantzeko alde bakarreko curl makina, disko bidezko kargak erabiliz 37
1 unitate: trizepsak lantzeko alde bakarreko iraupen-makina, disko bidezko kargak erabiliz 37
1 unitate: kuadrizepsak lantzeko alde bakarreko luzapen-makina, disko bidezko kargak erabiliz 38
1 unitate: femorala lantzeko alde bakarreko oin-makina, disko bidezko kargak erabiliz 38
1 unitate: prentsa inklinatua (45º), disko bidezko kargak erabiliz 38

1 unitate: hip thrust makina, disko bidezko kargak erabiliz 38
1 unitate: kokorikatzeak edo sentadillak gerrikoa erabiliz egiteko makina 39
1 unitate: jaka pendulua 39
126 unitate: helduleku bikoitzeko diskoak eta PVCko estaldura 39
6 unitate: posizio anitzeko banku doigarria 41
1 unitate: bizepsak lantzeko bankua 41
1 unitate: press banku horizontala 41
1 unitate: press banku inklinatua 42
1 unitate: sorbaldak lantzeko press bankua 42
4 unitate: hastapen-barra teknikoa, 183 cm-koa 42
1 unitate: 150 cm-ko barra 42
2 unitate: 120 cm-ko curl barra 43
10 lepoko pare + 9 barrarako rackak 43
3 unitate: haltera hexagonaletarako racka / *kettlebell* direlakoak 43
34 unitate: gomazko haltera hexagolanak 43
14 unitate: kettlebell-ak: 45
16 unitate: *wall ball* direlakoak 45
8 unitate: entrenamendu funtzionaleko zakua 45
2 unitate: pliometriako kaxa 46
5 unitate: esekidura-kita 46
2 unitate: 9 m-ko entrenamendu-soka. 46
2 unitate: lera-soka 46
2 unitate: arraste-lera 46
2 unitate: biltegiratze-racka 47
7 unitate: 220 cm-ko barra olinpikoa 47
5 unitate: 201 cm-ko barra olinpikoa 47
12 pare: barra olinpikoetarako ixteko lepokoak 47
1 unitate: barretarako rack bertikala 48
86 unitate: entrenamendu funtzionalean aritzeko bumper diskoak 48
4 unitate: bumper diskoetarako rack bertikala 48
1 unitate: kaiola funtzionala 48
6 unitate: zurezko uztaiak zintekin 49
2 unitate: kokorikatzeak egiteko rack plataformaduna 49

593 m2-ko zoladura teknikoa 50
1 unitate: soropil funtzionaleko erreia 50
VII. ERANSKINA: ESKAKIZUN TEKNIKOAK BETETZEN DIRELAKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA 51

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da Galdakaoko Udalaren kirol-instalazioen kudeaketa-zerbitzua eta jarduerak kontratatzea, genero-ikuspegia eta hizkuntza-irizpideak txertaturik, honako zerbitzua hauek barne:

- Koordinazioa
- Atezaintza
- Garbiketa
- Sorospena
- Jarduera gidatuen monitoreak
- Fitness jardueren monitoreak (makinetan egindako inbertsioa ere barnean hartuta, VI. eranskinean jasotako gutxienekoen arabera, enpresa esleipendunaren kontura).
- Mantentze-lanak

Kontratu honen xedea da Galdakaoko Udalaren kirol-instalazioen harrera, sarbideen kontrola, erabiltzaileen koordinazioa, administrazioa, sorospena eta kirol-jarduerak, garbiketa eta oinarrizko mantentze-lanak egitea, honako prestazio hauek guztiak aintzat hartuta:

1. Instalazio eta ondasun guztiak zaintzea eta haien oinarrizko mantentze-lanak egitea. Instalazio eta ondasun horiek garbiketa- eta erabilera-egoera ezin hobean egon beharko dute.
2. Instalazioetan behar besteko langile kualifikatuak izatea (zuzendaria, teknikaria, langileak, monitoreak eta abar), egin behar diren lanak egin ditzaten.
3. Erabiltzaileei arreta ematea eta administrazio-zerbitzua ematea, datuak hartzeari eta abonu-txartela egin eta banatzeari dagokienez, bai eta ikastaroetan izena emateari eta antolatzeari dagokionez ere.
4. Sarrerak kontrolatzea eta kuotak, sarrerak eta bonuak kobratzea. Diru-sarrerak egunero egingo dira, horretarako hautatutako udal-kontuan.
5. Osasun-, lan- edo beste arloren bateko lege-xedapen guztiak betetzea, bereziki instalazioetako ebakuazio-, larrialdi-, suteen aurkako borroka- eta segurtasun-planak.
6. Enpresa esleipendunak proposatutako programan ageri diren konpromisoak betetzea.
7. Zehazten diren kirol-ikastaroak ematea, honako eginkizun hauek aintzat hartuta:
    - Ikastaroetan parte hartzen duten pertsonak inskribatzea, indarrean dauden tasak eta prezioak biltzea eta diru-sarrerak egunero egitea horretarako hautatzen den udal-kontuan.
    - Hala badagokio, Udalarekiko zati proportzionala likidatzea, edo bestela, enpresari dagozkion ikastaroen ehunekoa.
    - Ikastaroak hitzartutako metodologiaren arabera egitea.
    - Ikastaroen kontrola, jarraipena eta ebaluazioa egitea, bai eta zerbitzu horri datxekion eta honako kontratazio hau arautzen duten baldintza-agirietan jasotzen den beste edozein zeregin ere.
8. Salbamenduko eta sorospeneko langileen eginkizunak egitea, eta lehen sorospeneko lokalez arduratzea.
9. Igerilekuei dagokienez, esleipendunak Eusko Jaurlaritzaren 32/2003 Dekretuan xedatutako Autokontrol Plana eta Kontrol Programa egingo ditu.
10. Kontratu honen xedean sartzen dira kirol egokituari lotutako jarduerak.

2.- ZERBITZUAK EMATEKO INSTALAZIOAK

Zerbitzuok leku hauetan emango dira:

Urreta kiroldegia	Bizkai kalea, 44, 48960 Galdakao Tel.: 94 - 456 27 03
Zuhatzuko kirol-eremua	Zuhatzu auzoa, z/g, 48960 Galdakao
Elexalde kiroldegia	Elexalde auzoa, z/g, 48960 Galdakao Tel.: 94 - 456 30 43
Elexaldeko igerilekuak	Elexalde auzoa, z/g, 48960 Galdakao Tel.: 94 - 456 76 81
Kurtzea frontoia	Kurtzeko plaza, z/g, 48960 Galdakao
Aperribaiko frontoia	Aperribai auzoa, 38-A, 48960 Agirre-Aperribai, Galdakao

Eta, hala dagokionean, Udalak erabakitzen dituen instalazioetan.

Instalazioak jendearentzat irekitzeko ordutegiak I. eranskinean xedatutakoaren arabera ezarriko dira.

Galdakaoko Udalak beretzat gordetzen du honako kontratu hau kontratua amaitu aurretik irekitzen diren instalazio berrietara hedatu ahal izateko eskubidea, baldintza bertsuetan.

Era berean, Galdakaoko Udalak kontratua murriztu dezake gaur egun martxan dagoen instalazioren batean.

3.- ZERBITZU BAKOITZA GARATZEKO EZAUGARRIAK ETA BALDINTZAK

Kontratu honen xedea da Galdakaoko Udalaren kirol-instalazioen kudeaketa-zerbitzua eta jarduerak kontratatzea, genero-ikuspegia eta hizkuntza-irizpideak txertaturik, honako zerbitzua hauek barne:

- Koordinazioa
- Atezaintza
- Garbiketa
- Sorospena
- Jarduera gidatuen monitoreak
- Fitness jardueren monitoreak
- Mantentze-lanak

Eskaintza teknikoak kontratuaren xede diren instalazioak irekitzeko kudeaketa-eskemaren proposamen zehatza eta osoa jaso beharko du, baita bete beharreko egitura, profilak eta eginkizunak ere. Bete beharreko ordutegia I. eranskinean zehazten da.

Zerbitzua kudeatzea dagokion enpresa esleipendunaren lanpostuen zerrenda eskaintzan agertu beharko da, eta lanpostu guztiak beren lanbide-kategoria eta dedikazioaren arabera zehaztuko dira.

Kontratuaren hasieran, esleipendunak honako hauek aurkeztuko ditu: lanpostu guztien zerrenda, lanpostu horiek betetzen dituzten pertsonen zerrenda, titulazioa, kontratu-mota, euskararen eta gaztelaniaren ezagutza –euskarari gagozkiola, langile bakoitzaren hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria aurkeztu beharko da– eta bakoitzaren dedikazioa eta ordutegia. Edozein aldaketa idatziz jakinaraziko zaio Udalari, eta langileen zerrenda eguneratua aurkeztuko da berriro.

Kontratistak kirol-zerbitzuari atxiki beharko dizkio baldintza-agiri honetan eskatzen diren prestazio guztiak modu egoki eta eraginkorrean betetzen direla bermatzeko beharrezkoak diren langileak. II. eranskinean jasota dago zerbitzuak emateko urtean zenbat ordu aurreikusten diren.

Agiri honetako jarduerak kudeatzen dituzten kontratako langileek eragindako altak, bajak, antzeko egoerak eta aldaketak Galdakaoko Udalari jakinaraziko zaizkio, eta horren arrazoiak emango zaizkio.

Enpresa esleipendunak kontratuaren baldintzak behar bezala betetzeko behar diren langileak izango ditu une oro, eta langile horien kualifikazioa eta egokitasun teknikoa bermatu beharko ditu. Langile horiek, lanbide-kategoriak aintzat hartuta, legezko xedapenetan eskatzen den titulazioa izan beharko dute.

Gainera, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, enpresa esleipendunak adingabeekin lan egiten duten langile guztien Sexu Delitugileen Erregistro Zentraleko sexu-delitu negatiboen ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Enpresa esleipendunak zerbitzua etengabe ematen dela bermatuko du, eta, horretarako, langileak berehala ordezteko eta aldatzeko sistema bat izango du, gaixotasunen, istripuen edo bestelako inguruabarren ziozko bajak gertatuz gero. Esleipendunaren erantzukizuna da lantokia utz ez dadin lanpostua aldez aurretik ordeztu gabe.

ALKATETZAREN 1/2017 INSTRUKZIOKO IRIZPIDEAK, KANPOKO ZERBITZUAK BEHAR BEZALA GAUZATZEKO ETA LAN-HARREMANAK AITORTU DAITEZEN SAIHESTEKO:

Enpresa esleipendunak gutxienez pertsona bat izendatu beharko du koordinatzaile tekniko. Koordinatzaile teknikoa kontratistaren langileetako bat izango da, eta erakunde kontratatzailearekiko solaskide bakarra izango da; hala, hari egokituko zaio lana zuzentzea eta aginduak eta jarraibideak emango dizkie zuzenean pertsona horrek enpresa esleipenduneko gainerako langileei.

Enpresak benetan, modu eraginkorrean eta aldizkakoan baliatu beharko du enpresaburu orok bere langileak direla eta izan behar duen zuzendaritza-ahalmena, eta bere gain hartu beharko ditu honako hauek: soldaten negoziazioa eta ordainketa; baimenak, lizentziak eta oporrak ematea; ordezpenak; laneko arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak; diziplina-zehapenak ezartzea, hala dagokionean; Gizarte Segurantzan sortzen diren ondorio guztiak,

bereziki kotizazioak ordaintzea eta prestazioak ordaintzea, eta, oro har, enplegatzailearen eta enplegatuaren arteko kontratu-harremanari doazkiom eskubide eta betebehar guztiak.

Aurreko atalean xedatutakoa alde batera utzi gabe, kontratatutako prestazioa hasi aurretik eta prestazioa gauzatzen den bitartean, zerbitzua gauzatzean betetzen duen langile bakoitzaren afiliazioa eta Gizarte Segurantzako alta egiaztatu beharko dira.

Kontratistak erabiltzen dituen langileek behar bezala uniformatuta eta identifikatuta egon beharko dute, ikur bereizgarriak erabiliz, plantillak nahas ez daitezen, eta, une oro, zuzen eta egoki jardun beharko dute udaleko langileekin, erabiltzaileekin eta harpidedunekin.

Esleipendunaren erantzukizuna izango da atxikitako langileek erabiltzaileei buruz ikusten dituzten informazio-, arreta- edo begirune-faltak.

Kontratu honen araubide juridikoari datxezkion betebehar orokorrez gain, kontratistak indarrean dauden xedapen guztiak bete beharko ditu arlo hauetan: laneko legeria, Gizarte Segurantza eta Laneko Segurtasun eta Higienea. Betebehar horiek ez betetzeak ez dio inolako erantzukizunik ekarriko Galdakaoko Udalari.

Galdakaoko Udalak ez du harreman juridikorik ez lan-harremanik izango enpresa esleipenduneko langileekin kontratua indarrean dagoen bitartean, ezta amaitzen denean ere. Kontratistak berariaz adierazi beharko du hori sinatzen duen lan-kontratuetan.

Hona hemen enpresa eskaintzaileak eman beharreko zerbitzu hauen edukia:

Instalazioen eta kirol-zerbitzuen koordinazioa

Prestazio hauek eman beharko dira:

- Kontratu honen xede diren prestazio guztiak gainbegiratzea eta koordinatzea.
- Galdakaoko Udaleko teknikariekin hitz egitea kirol-zerbitzuak emateari buruz.
- Udalaren Kirol Instalazioen Zerbitzuen Erregelamendua ezagutzea eta betetzen dela gainbegiratzea.
- Udalbatzari kirol-arloko gastua arrazionalizatzeko proposamenak egitea.
- Udalbatzari laguntzea beharrezko hornidura, zerbitzu eta mantentze-lanen ondoriozko kontratazioak izapidetzen eta esleitzen.
- Udalaren kirol-jardueraren plangintzan eta programazioan laguntzea (entrenamenduko kantxen erreserbak, ikastaroak, lagapenak...).
- Kontratuko prestazioak egiteko behar bezala kualifikatutako langileen esleipena gainbegiratzea.
- Langileek udal-zerbitzuetako erabiltzaileekiko portaera egokia dutela eta behar bezala uniformatuta daudela bermatzea.
- Kirol-instalazioen kontserbazioa eta mantentzea gainbegiratzea eta koordinatzea.
- 32/2003 Dekretuan araututako Autokontrol Plana eta Kontrol Programa gauzatzen direla gainbegiratzea.
- Kirol-zerbitzuak emateagatiko tasei dagokienez, kobratzeko, likidatzeko eta kontuak emateko kudeaketa gainbegiratzea.

- Udalaren kirol-instalazioetan egiten diren ikastaroak gainbegiratzea, kontrolatzea eta ebaluatzea.
- Lan-legeriaren, Gizarte Segurantzaren eta Laneko Segurtasun eta Higienearen arloan indarrean dauden xedapenak betetzen direla jagotea.
- Koordinazio-arduradun gisa, udalaren kirol-instalazioen autobabes-planetan indarrean dauden xedapenak betetzen direla jagotea.

Monitoreak

Eskolak ematen dituzten langileek jarduera bakoitzeko eskatzen den gutxieneko kualifikazio tekniko espezifikoa izan beharko dute.

Enpresa esleipendunak saioak eman beharko ditu, betiere egutegian programatuta badaude eta gutxienez erabiltzaile bat (1) aurkezten bada ikastaroa hasi eta 10 minutuko epearen barruan.

Enpresa esleipenduneko langileek bertaratze-zerrenda aurkeztu beharko dute saio bakoitzean, eta hutsegiteak idatziko dituzte saio guztietan.

Langileek nahikoa denboraz joan beharko dute instalaziora, gela irekitzeko eta saioa hasi aurretik saiorako behar den materiala prestatzeko.

Sorospen-zerbitzua

Sorospen-zerbitzuaren helburua bikoitza izango da. Alde batetik, erabiltzaile guztien segurtasuna zaintzea; eta, bestetik, igerilekuak erabiltzen dituzten pertsonen portaera kontrolatzea, zerbitzua behar bezala erabil dezaten zainduz eta ezartzen diren erabilerek beharrezkoak dituzten kudeaketa-lanak garatuz.

Zerbitzua osorik emateko finkatzen den ordutegian, beharrezkoa izango da gutxienez uretako salbamenduari eta lehen sorospenak emateari buruzko prestakuntza duen pertsona bat egon dadin instalazio bakoitzean; eta Elexalde 1eko instalazioari dagokionez, ontzi bakoitzean. Pertsona horrek dagokion indarreko titulazioa izan beharko du.

Igeriketa-ikastaroak ematen direnean, igerilekuak irekita egon behar du ikastaroaz kanpoko jendearentzat; beraz, monitore horrek ezin izango ditu, aldi berean, monitore eta sorosle gisa jardun, nahiz eta soroslearen titulua izan.

Enpresa esleipendunak honela beteko du Elexaldeko igerileku-zerbitzua:

- Ekainaren 15etik irailaren 15era:
  - Astelehenetik igandera, 11:00etatik 21:00etara: 3 sorosle, zerbitzu ona bermatzeko.
- Ekainaren 1etik 14ra eta irailaren 16tik 30era:
  - Astelehenetik ostiralera, 15:00etatik 20:00etara: 3 sorosle.
  - Asteburuetan, 11:00-20:00: 3 sorosle.

Zerbitzuaren helburu bikoitzaz gain, sorospen-langileek honako alderdi hauek bete beharko dituzte:

- Instalazioa irekitzerakoan, langileak nor bere lanpostuan egongo dira.
- Ohiko kontrolak egiteko eta, instalazioa ireki aurretik, ura eta instalazioak egoera onean daudela egiaztatzeko behar besteko aurrerapenaz joango da lanpostura.
- Erabiltzaileak igerilekutik ateratzeko behar diren ekintzak egingo ditu, instalazioa ixtean hutsik gera dadin.
- Inola ere, ez du lanpostua bertan behera utziko.

Atezaintza:

Zerbitzu horren ezaugarriak direla eta, honako lan hauek egin beharko dira:

- Kirol-zerbitzuari buruzko informazioa ezagutzea.
- Erabiltzaileei harrera egitea eta kirol-zerbitzuari buruzko informazioa ematea: tarifak, kirol-eskaintza, abonuak, alokairuak...
- Sarbide-kontrolaz arduratzea.
- Telefono bidezko arreta ematea.
- Abonatuen kuotak kobratzea.
- Ikastaroetako matrikulazioa kudeatzea.
- Gutunak, paketeak eta argitalpenak hartzea eta/edo banatzea.
- Instalazioen eta zerbitzuen itxurazko egoera gainbegiratzea.
- Suteetan edo beste alarma batzuetan, beste zerbitzu publiko batzuek esku hartu behar badute, horiei abisatzea eta baldintzarik gabe laguntza ematea, ahalik eta lasterren Koordinazio-arduradunari eta izendatutako pertsonei jakinarazita.
- Gorabehera aipagarri guztien berri ematea instalazioak koordinatzeko arduradunari.
- Edozein gorabehera, ezbehar edo matxuraren berri ematea zerbitzuaren arduradunari.
- Bisitariei laguntzea, hala behar izanez gero.
- Instalazioak irekitzea eta ixtea.

Mantentze-lanak

Esleipendunak udalaren kirol-instalazioak zaintzeko eta mantentzeko zerbitzua eman beharko du. Zerbitzu horren barruan daude elementu higigarriak eta higiezinak konpontzeko lanak eta, nolanahi ere, honako alderdi hauek guztiak:

- Sistema elektrikoa, alarmak eta abar gainbegiratzea eta kontrolatzea.
- Elementu guztien egoera berrikustea, gerta litekeen edozein akats edo matxuraren berri ematea, eta edozein arrazoirengatik gaizki daudenak identifikatzea, ondoren prebentziozko mantentze-lanak egiteko.
- Araztegia martxan jartzea eta itzaltzea.
- Makinen funtzionamendua kontrolatzea (araztegiak, airea berritzekoak, galdarak...) eta prebentziozko mantentze-lanak (koipeztatzea, doitzea...) kontrolatzea.

- Matxura txikiak konpontzea, elementu mugikorren gurpila aldatzea, txorrota doitzea, leihatiletako sarrailak aldatzea eta abar (materialik gabe).
- Lanparak edo luminariak aldatzea (eskuzko eskailera arinak erabiliz irisgarriak diren eremuetan daudenak soilik, hau da, eusteko sistema berezirik eta jasotze mekanikoko ekipamendurik behar izan gabe garaiera txikian egin daitezkeen lanak gauzatzea). Era berean, tramex babestuko plataformetan dauden argiak aldatuko dira (sarbide segurua eta erortzeko arriskua ezabatzen duten eskudelak dituztenak).
- Igerilekuak betetzea eta hustea, hala badagokio.
- Igerilekuetako ontziak erraztatzea eta garbitzea.
- Uraren kalitatearen kontrola egitea.
- Elexaldeko estali gabeko igerilekuak prestatzea udako denboraldian ireki aurretik: berrikustea, ontziak betetzea...
- Udako denboraldia amaitu osteko lanak egitea Elexaldeko estali gabeko igerilekuetan: ontziak hustea, zigilatzea, biltzea eta abar.

Garbiketa:

Garbiketa-zerbitzua dela eta, kirol-instalazioak, altzariak eta komunak garbituko dira, bai eta horietarako produktuak birjarri ere, azpiegitura guztiak garbitasun- eta osasun-egoera ezin hobean egon daitezen.

Zerbitzua behar bezala emateko behar diren garbiketa-material eta -produktu guztiek kalitate onekoak izan beharko dute, eta enpresa esleipendunaren kontura izango dira. Zerbitzua emateko proiektuaren lizitatzaileak, gutxienez, III. eranskinean ageri diren garbiketa-zerbitzuak eta maiztasuna eskaini beharko ditu.

Arestian esandakoaz gain, garbiketako langileak arduratuko dira urak biltzeaz uholderik gertatuz gero, eta berehala garbituko dira orbanak istripuen edo beste edozein arrazoiren ondorioz gertatzen direnean.

Enpresa eskaintzaileek garbitu beharreko azaleretara egokitutako garbiketa-plan xehatua jaso beharko dute memorian, honako hauek adierazita: jarduketen maiztasuna, produktu-motak, makinak eta kontratuaren eskura jarriko diren erremintak eta lanabesak.

4. KIROL-JARDUERAK ETA -IKASTAROAK

Enpresa esleipendunak Galdakaoko kirol-jardueren eskaintza kudeatuko du. IV. eranskinean, kirol-jardueren programa benetakoa eta orain dela gutxikoa erantsi da, informazio gisa.

Enpresa lizitatzaileek zati batez ordainduko dituzte ikastaroen kostuak (langileak, ordezkapenak, bajak...), matrikularen kariaz ikastaroek sortzen dituzten diru-sarrerak erabiliz, programazio estandarraren ohiko dinamika aldatzen ez den bitartean; kasu horretan, prezio/ordu kontzeptua aplikatuko da. Diru-sarrera horietatik kanpo geratzen dira Fitness gelan matrikulatzen diren pertsonek sortutakoak.

Enpresak programatzen dituen ikastaro guztiek Udalaren oniritzia izan beharko dute.

Galdakaoko Udalak egoki irizten dionean, esleipendunak saio edo modalitate gehiago edo gutxiago eman beharko ditu.

Programatzen diren ikastaroak nahitaez egingo direnez, enpresa esleipendunak monitoreak berehala ordezteko sistema bat jarri beharko du martxan, bezeroak kontratatutako zerbitzua jaso gabe gera ez daitezen.

Ikastaro bakoitzean parte hartuko dutenen gehieneko eta gutxieneko kopurua Udalak zehaztuko du, eskolen kalitatea bermatzeko.

Instalazioetan ezin izango da gauzatu instalazioari edo erabiltzaileei ageriko arriskua dakarkien jarduerarik.

5.- KLUBEN, IKASLEEN ETA ELKARTEEN HARREMANA ESLEIPENDUNAREKIN

Udalak, denboraldi hasieran, klub eta elkarte federatuen entrenamenduen eta lehiaketen egutegia egingo du, bai eta udalaren kirol-instalazioak horretarako utzitako ordutegietan erabiliko dituzten eskola-umeen egutegia ere. Egutegi hori esleipendunari jakinaraziko zaio, jakinaren gainean egon dadin eta aplika dezan.

6-. ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZA OROKORRAK

Honako hauek kontratistaren betebehar orokorrak izango dira eta zerbitzu guztiei aplikatuko zaizkie:

1. Esleipendunak instalazioak ustiatuko ditu Administrazio Klausula Berezien eta Orokorren Agirian, Baldintza Tekniko Berezien Agirian eta esleipendunak bere eskaintzan proposatutakoaren arabera, eta une oro bete beharko du aplikagarri zaion indarreko araudi guztia.

2. Enpresa esleipendunak zerbitzua koordinatzeko eskatzen zaizkion bilera guztietan parte hartuko du.

3. Datu pertsonalak babesteari, artxiboak erabiltzeari edo erabiltzaileen erregistroei buruz unean-unean indarrean dagoen estatuko araudia eta Europar Batasunekoa betetzen dela zaintzea. Enpresa esleipendunaren jardunbide txarraren ziozko erreklamazio oro, enpresa esleipendunaren erantzukizuna izango da.

4. Ikastaroetara joandakoen eskutik jasotako tarifen diru-sarrerei buruz kontratuan hitzartutako ehunekoa Udalari likidatzea, bai eta abonu eta sarrerengatiko diru-sarrera guztiak ere. Sarrerak horretarako hautatutako udal kontuan egin beharko dira.

Enpresa esleipendunaren eskubideen artean, hauek nabarmentzen dira:

- Zerbitzua emateko beharrezkoak diren ondasunak eta instalazioak erabiltzea.
- Zerbitzua emateagatiko kontratuaren araubide ekonomikoaren araberako ordainsariak jasotzea. Horrekin lotuta, hilero fakturatuko du, zerbitzu bakoitzaren kostua zehaztuta.

- Hirugarrenek enpresaren jardunbidea errespetatzea, kontratazioaz arduratzen diren langileen laguntzaz, zerbitzua normaltasunez eman ahal izan dezaten.
- Kontratazio-organoaren ordezkariari komenigarritzat eta/edo beharrezkotzat jotzen dituen aldaketa, hobekuntza eta berrikuntza tekniko edo bestelakoak proposatzea.

Administrazioaren betebeharren artean, hauek nabarmentzen dira:

- Baldintza tekniko berezien agiri honetan jasotako guneak kontratistaren esku jartzea.
- Kontratu honen xede diren jardueren berri ematea.
- Instalazioen egokitzapena baimentzea, berrikustea, egiaztatzea eta, hala badagokio, aldatzea.
- Kontratistak proposatutako jarduera-plana onartzea, adostutako maiztasunaren arabera.
- Emandako zerbitzuen tarifak onartzea.
- Zerbitzuak garatzeko erabili beharreko baliabide mekanikoen eta materialen inbentarioa onartzea.
- Dagokion kontrol-jarduera kontratuaren arduradunaren bitartez egitea; horretarako, edozein unetan ikuskatu ahal izango ditu kontratuaren xedearekin lotutako zerbitzua, obrak, instalazioak, materiala eta dokumentazioa.
- Zerbitzuak ematean egokitzat jotzen dituen zuzenketak eta/edo aldaketak proposatzea, baldin eta hori komenigarria edo beharrezkoa bada, bere eskaeran egindako berrikuspen- eta kontrol-jardueren ondorioz emandako txostenak ikusita.

7.- ENPRESA ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK GENERO-IKUSPEGIAREN ARLOAN

- Sortzen diren dokumentuetan eta euskarrietan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egitea.
- Genero-ikuspegia kontuan hartzea kontratua gauzatzean sortzen diren txosten, idazki, datu-bilketa (sexuaren arabera banatuta), estatistika eta abarretan.
- Indarrean, onartuta eta erregistratuta izatea Berdintasun Plana, urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretuaren arabera.

8.- ENPRESA ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK HIZKUNTZA-IRIZPIDEEN ARLOAN

Kontratu honetan bi hizkuntzen ofizialtasunaren araubidea bete behar da, zeina Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarri zen, eta, besteak beste, honako arau hauetan arautu zen: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa; hori garatzen duen 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa (6. eta 7. artikuluak); eta 179 Dekretua, azaroaren 22koa Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.

Hori dela eta, Udalak eta udal-zerbitzuek, bai eta zerbitzu-hornitzaileek ere, euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunaren araudia beteko dute, eta euskara lehenetsiko dute beti, ahoz zein idatziz.

Hala ere, beti errespetatuko da interesdunen hizkuntza-hautua, ahoz zein idatziz.

9.- MANTENTZE- ETA MATERIAL-GASTUAK ETA INBERTSIOAK

Enpresa esleipendunak VI. ERANSKINEAN ageri diren elementuak hornitu beharko ditu fitness gelarako, dokumentu horretan definitutako ezaugarriak aintzat hartuta. Kontuan izan beharko da kontratu hau amaitzean makina horiek udalaren jabetzakoak izango direla.

Horniduren, mantentze-lanen eta inbertsioen gainerako gastuak, eta diru-sarreren kobrantzatik eratorritako finantza-gastuak (halakorik balego) Udalaren kontura izango dira. Hala ere, langileek beren eginkizunak betetzeko behar dituzten laguntza teknikoetatik eratorritakoak (aplikazio informatikoak...) eta langileen arduragabekeriak edo jardunbide txarrak eragindako finantza-gastuak esleipendunaren kontura izango dira.

Era berean, emakidadunak instalazioak hobetzeko beharrezko hornidura edo mantentze-lanak egin ahal izango ditu. Horiek Udalaren kontura izango dira, eta alkateak edo hark eskuordetutako zinegotziak baimendu edo ukatuko du inbertsioa, dagokion txosten teknikoa egin ondoren.

Esleipendunak, zerbitzua emateko proiektuan, eskainitako zerbitzuez gain, zerbitzuak garatzeko erabili beharreko baliabide mekanikoak eta materialak adieraziko ditu, bai eta horien kalitateak eta/edo homologazioak ere.

Ikastaroak eta jarduerak emateko behar den materiala Galdakaoko Udalaren kontura izango da, baldin eta **ikastaroak udal-programazioan jasota badaude eta Udalak ikastaroengatiko diru-sarreren % 5 baino gehiago jasotzen badu**, nahiz eta enpresa esleipenduna arduratuko den materiala mantentzeaz. Esleipenduna arduratuko da material hori behar bezala erabiltzeaz. Behar bezala erabiliko ez balitz, esleipendunaren kontura izango litzateke hori birjartzea.

Material berriak Galdakaoko Udalak erosiko ditu, baldin eta udal-eskaintzan jasotako ikastaroetan erabiltzeko bada, esleipendunak eskainitako hobekuntzei kalterik egin gabe.

10.- DATUEN BABESA

Izaera pertsonaleko datuen tratamendua.

Eragiketa eta prozedurak, automatizatuak edo ez, datu pertsonalen tratamendutzat hartuko dira, baldin eta, biltzea, grabatzea, kontserbatzea, lantzea, aldatzea, blokeatzea eta ezeztatzea ahalbidetzen badute; halaber, pertsona fisiko identifikatuei edo identifikagarriei buruzko edozein informaziori dagozkion jakinarazpen, kontsulta, interkonexio eta transferentzien ondorioz egindako datu-konexioak ere berdin hartuko dira.

Kontratuaren ondorioz enpresa esleipendunak datu pertsonalak tratatuko edo atzituko ditu; eta, beraz, aintzat hartuko du Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen hogeita bosgarren xedapen gehigarrian eta honako arau hauetan ezarritakoa:

1. Tratamenduaren arduradunak emandako jarraibideen arabera soilik tratatuko ditu datuak enpresa esleipendunak.

2. Tratatu beharreko datuak kontratuaren xedea egiteko bakarrik erabiliko dira, eta ezin izango dira erabili beste xede baterako.

3. Kontratu honen ondorioz tratatutako datu pertsonalak ez zaizkie hirugarrenei emango. Hori dela eta, enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen du datu pertsonalak edo horiek biltzen dituzten fitxategiak inori ez helarazteko, emateko, lagatzeko edo komunikatzeko, ez ahoz ez idatziz, ez baliabide elektronikoen bidez, ez paperean ez atzipen informatikoez baliatuta, nahiz eta ikusteko soilik izan.

4. Enpresa esleipendunak eta kontratuaren xede den prestazioan parte hartzen duten pertsona guztiek Datu Pertsonalen Babesari buruzko Lege Organikoan ezarritako konfidentzialtasun-betebeharra bete beharko dute. Betebehar horrek indarrean jarraituko du kontratua azkendu ondoren (dela gauzatu delako, dela suntsiarazi delako).

5. Enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen du datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen neurri teknikoak, administratiboak eta antolakuntzakoak hartzeko, kontratu honen xede diren lanak egiteko tratatuko diren datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren heinean.

a) Horri dagokionez, lanak hasi aurretik, enpresa adjudikaziodunak datu pertsonaletara sarbidea duten langile guztien zerrenda bat eman beharko dio kontratazio-organoari, eta bertan haien izen-abizenak, eginkizunak eta lana egingo duten lekua adierazi beharko dira. Kontratua gauzatzen den bitartean langileak sartu behar badira edo baja eman behar bazaie, enpresa adjudikaziodunak beste zerrenda bat emango du, gehienez ere astebeteko epean, gertaera hori gertatzen denetik zenbatzen hasita. Bai enpresa esleipendunak bai zerrenda horietan agertzen diren langile guztiek konpromisoa hartu beharko dute, idatziz eta formalki, tratatzen dituzten datuei buruzko sekretu profesionala gordetzeko.

b) Enpresa adjudikazioduna behartuta dago baldintza-agiri teknikoetan zehazten diren segurtasun-neurriak ezartzera tratamendu-zentroei, lokalei, ekipoei, sistemei eta programei dagokienez.

c) Kontratuaren xede den prestazioa amaitu ondoren, enpresa esleipendunak datu pertsonalak dituzten euskarri guztiak itzuli beharko ditu, edo fitxategi guztiak suntsitu edo ezabatu. Edozein berreskuratze-prozesu aplikatzea ezinezkoa izan dadin egingo da suntsipena. Fitxategiak itzuli edo suntsitu direla egiaztatzeko, akta bat egingo da, enpresa esleipendunaren ordezkariak eta lanen zuzendariak izenpetua, eta inguruabar horiek jasoko ditu.

Hornitzaileek emandako zerbitzuaren eremuan datu pertsonaletarako sarbidea eskatzen duten kontratazio-espedienteen kasuan, datuak babesteko akordio bat sinatzeko entregatuko da.

I. ERANSKINA. JENDAURREKO INSTALAZIOAK IREKITZEKO GUTXIENEKO ORDUTEGIAK (30’ gehiago aldagelak erabili eta haietatik irteteko)

Urretako kiroldegia

- Astelehenetik ostiralera 08:00etatik 23:00etara
  - Irailetik ekainera, biak barne, 16:00etatik 21:00etara, bi pertsona atezaintzan.
  - Fitness gela, 07:00etatik 23:00etara.
- Larunbatetan, 09:00etatik 22:00etara
- Igande eta jaiegunetan, 09:00etatik 20:00etara.
- Larunbat, igande eta jaiegunetan Urreta ikastetxeko jolastokiko ateak ireki eta itxiko dira kiroldegia ireki eta ixteko ordutegiaren aurretik eta ondoren (geltoki teknikoan izan ezik).

Elexaldeko kirolgunea

- Frontoia:
  - Astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 22:00etara.
  - Larunbatetan, 09:00etatik 20:00etara.
  - Igande eta jaiegunetan, 09:00etatik 14:00etara.
- Futbol-zelaia eta atletismoko pista
  - Astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 22:00etara.
  - Larunbatetan, 09:00etatik 20:00etara.
  - Igande eta jaiegunetan, 10:00etatik 14:00etara.
- Estali gabeko igerilekuak
  - Ekainaren 15etik irailaren 15era:
    - Astelehenetik igandera, 11:00etatik 20:00etara.
  - Ekainaren 1etik 14ra eta irailaren 16tik 30era:
    - Astelehenetik ostiralera, 15:00etik 20:00etara.
    - Larunbat-igandeetan: 11:00etatik 20:00etara.

Zuhatzuko kirol-eremua

- Kirol-zelaia eta futbol-zelaia
  - Astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 22:00etara.
  - Larunbatetan, 09:00etatik 20:00etara.
  - Igande eta jaiegunetan, 09:00etatik 14:00etara.
  -

Frontoiak

- Kurtzeko frontoia
  - Astelehenetik igandera: instalazioak gutxienez 5 orduz kontrolatu eta garbitzea, 08:00etatik aurrera.
  - Jaiegunetako ordutegia kirol-programazioaren arabera aldatu ahal izango da.
- Aperribai frontoia
  - Aldagelak nahi bezala garbitzea (erreferentzia gisa 2/3 aldiz irailetik ekainera).

II. ERANSKINA. URTEKO ZERBITZUA (ADIBIDEA)

Servicio	Urreta (h/año)	Elexalde (h/año)	Elexalde (h/año)	Kurtzea (h/año)	Zuazo (h/año)	Aperribai (h/año)	S. Barbara (h/año)	Todas (h/año)	TOTAL
Conserjería	6.030,00	3.600,00	1.754,00	-	-	-	-	-	11.384,00
Monitores	9.000,00	-	-	-	-	-	-	-	9.000,00
Fitness	5.108,00	-	-	-	-	-	-	-	5.108,00
SOS	4.900,00	-	3.034,00	-	-	-	-	-	7.934,00
Limpieza	7.450,00	3.519,00	900,00	1.800,00	1.647,00	198,00	1.345,00	-	16.859,00
Mantenimiento	-	-	-	-	-	-	-	4.905,00	4.905,00
Coordinación	-	-	-	-	-	-	-	1.635,00	1.635,00
TOTAL									**56.825,00**

III. ERANSKINA. GUTXIENEKO GARBIKETA-ZERBITZUAK ETA -MAIZTASUNAK

Instalazioak eta gelak garbitzea:

- Zoruak erraztatzea
- Zoruetan lanbasa pasatzea
- Koltxonetak eta moketak garbitzea
- Alfonbrak eta moketak garbitzea
- Zoruak desugertzea eta distiraraztea
- Barruko metalak garbitzea
- Altzariak garbitzea eta distiraraztea
- Komunak eta konketak garbitzea eta desinfektatzea
- Lauzaz edo gresez estalitako hormak detergente egokiak erabiliz garbitzea
- Gortinak garbitzea
- Kirol-eremuak garbitzea, baita makinak eta kirol-materiala ere
- Komuneko papera eta xaboia birjartzea
- Kanpoko kristalak eta leiho erabilgarriak garbitzea
- Barruko kristalak garbitzea
- Hautsontziak, paperontziak, telefonoak eta sute-zerbitzuak garbitzea
- Altuerak pertikaz garbitzea
- Aire-irteeretako hautsa garbitzea
- Ateak eta markoak garbitzea
- Ontziak garbitzea
- Urretako eskalada-murruko zorua garbitzea
- Kurtzea pilotalekuko zorua garbitzea
- Udako denboraldian Elexaldeko estali gabeko igerilekuetako berdeguneak garbitzea

